

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

2020/4ko kreditu gehigarriaren espedientea eta aurrekontuko aldaketa, behin-behineko onartzea

Batzarrak, 2020ko uztailaren 16an egindako ohiko bilkuran, 2020/4ko Kreditu Gehigarriaren espedientea eta aurrekontuko aldaketa, dirulaguntza izendunaren onuraduna eta helburua aldatuz, behin-behineko onarpena erabaki zuen.

3/2004ko Foru Arauak 34. artikuluan araututakoaren ildotik, espediente hori hamabost egun baliodun egongo da jendeaurrean iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesadunek aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izan diezazkioten Udal Gobernu Batzordeari.

Adierazitako epean erreklamaziorik aurkeztu ezean, Kreditu Gehigarriaren espedientea behin betiko onartutzat joko da.

Denek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan ematen da aditzera.

Ondategin, 2020ko uztailaren 17an

Jarduneko alkatea

CARLOS ALBERTO ITURRIOZ MALAINA